## UPV/EHU-KO ARTE EDERREN FAKULTATEKO ERAKUSKETA ARETOA ERABILTZEKO ARAUAK

## NORMAS DE USO DE LA SALA DE EXPOSICIONES DE LA FACULTAD DE BELLAS ARTES DE LA UPV/EHU

| | |
|---|---|
| UPV/EHUko Arte Ederren Fakultateak badu, azkenez, hainbeste desiratzen zuen Erakusketa Aretoa. Bertara I. eraikineko halletik iristen da, eta ikus-entzunezkoen antzinako instalazioen zati bat okupatzen du.<br><br>**Norengana zuzentzen da?**<br>Hurrenkera honetan:<br><br>Fakultateko zuzendaritzatik sustatutako jarduerak, Unibertsitate Hedakuntzako dekanordetzaren programazioa, eta fakultateak eta beraren sailek kanpoko beste eragile batzuekin egindako proposamenak.<br><br>Ikasleak, batez ere irakaskuntzaren arloko gaietarako.<br><br>Irakasleak, irakaskuntza-materialen eta/edo talde-lanen erakusketetarako.<br><br>Salbuespen gisa, kanpoko eragileekin –gurekin lankidetza hitzarmena dutenak- egindako irakaskuntza edo ikerkuntza-trukeei lotutako edo hortik ondorioztatutako jarduera edo emaitzak ere hartu ahal izango dira.<br><br>**Banakako erakusketarik egin daiteke?**<br>Talde, maila, gela, kolektibo eta bestelakoen erakusketetara dago zuzenduta. Salbuespen gisa, batzordeak baloratu ahal izango du, kasuan kasuko proposamena, aretoaren okupazioa eta proiektuaren interesa kontuan hartuta, banakako erakusketa bat onartzeko aukera, betiere urtean | La Facultad de Bellas Artes de la UPV/EHU, cuenta ya con la tan ansiada Sala de Exposiciones. El acceso a la misma se realiza desde hall del edificio I y ocupa parte de las antiguas instalaciones de audiovisuales.<br><br>**¿A quién va dirigida?** Por el siguiente orden:<br><br>A las actividades promovidas desde la dirección del centro. la programación del videcanato de Extensión Universitaria, así como las propuestas del centro y los departamentos en colaboración con otros agentes externos.<br><br>Al alumnado, con preferencia de cuestiones docentes.<br><br>Al profesorado para exposiciones de material docente, y/o trabajos de grupo.<br><br>Excepcionalmente se podrá dar cabida a actividades o resultados derivados de intercambio docente o de investigación de/con agentes externos -con los que tengamos establecidos convenios de colaboración.<br><br>**¿Se puede hacer una exposición individual?**<br>Está destinada a exposiciones de grupos, curso, aula, colectivos etc. Excepcionalmente, la comisión podrá valorar, en función de la propuesta, la ocupación de la sala y el interés del proyecto, la posibilidad de aceptar una exposición individual, siempre |

| | |
|---|---|
| programatutako erakusketen 1/4 baino gehiago ez badira.<br><br>**Zenbat denboraz irauten du erakusketa bakoitzak?**<br>Gehienez bi astez, muntatze- eta desmuntatze-denbora barne sartuta.<br><br>**Nor arduratzen da aretoa muntatzeko, obrak esekitzeko eta desmuntatzeko lanaz?**<br>Interesatuek<br><br>**Iltzerik sar daiteke, zulorik egin, eta abar?**<br>Bai, baina desmuntaketa egitean zuloak estali behar dira eta era guztietako sokak edo ainguratze-tresnak kendu.<br><br>**Hormak pintatu behar ditugu erakusketa amaitzen denean?**<br>Ez da beharrezkoa, hormaren kolorea aldatu ez bada (beste kolore batez margotu, beraren gainean marraztu, eta abar). Fakultatea konprometitzen da hormak urtean bi aldiz zuritzeko (Gabonetan eta udan), beharrezkoa izanez gero.<br><br>**Badago ikus-entzunezko materialik erakusketetarako?**<br>Bi bideo-proiektore eta 4 pantaila egongo dira aretoan erabiltzeko. Gainerako ikus-entzunezko materiala haren jabeekin negoziatu behar da, hau da, fakultatearekin edo sailetako zuzendaritzekin. Irakaskuntzak lehentasuna izango du beti.<br><br>**Badago idulkirik?** Fakultateak gehienez lau idulki zuri eskaintzen ditu<br><br>**Badago segurtasun neurririk?**<br>Sarrerako ateak hallera darama, eta, hortaz, Atezaintzako pertsonalak zainduko du. Gainera, aretoak zaintza-sistema bat izango du. | que no superen 1/4 de las exposiciones programadas en el año.<br><br>**¿Cuánto tiempo dura cada exposición?**<br>Máximo dos semanas, incluido montaje y desmontaje.<br><br>**¿Quién se encarga de montar, colgar y desmontar la sala?**<br>Lxs interesadxs<br><br>**¿Se puede clavar agujerear, etc?**<br>Si, pero en el desmontaje se deben de tapar los agujeros y quitar todo tipo de cuerdas o dispositivos de anclaje.<br><br>**¿Tenemos que pintar las paredes al finalizar la exposición?**<br>No es necesario si no se ha alterado el color de pared (pintado de otro color, dibujado sobre la misma, etc). El centro se compromete a blanquear las paredes dos veces al año (navidad y verano), si fuese necesario.<br><br>**¿Se dispone de material audiovisual para las exposiciones?** Se dispondrá de dos video-proyectores y 4 pantallas para su uso en la sala. El resto de material audiovisual se debe de negociar con los propietarios del mismo, es decir, el centro, o las direcciones de los departamentos. La docencia tendrá siempre prioridad.<br><br>**¿Se dispone de peanas?**<br>El centro suministra un máximo de cuatro peanas blancas<br><br>**¿Hay medidas de seguridad?**<br>La puerta de acceso da al hall, por lo que estará supervisada por el personal de Conserjería, y la sala estará dotada de un sistema de vigilancia. |

**Nork du aretora sartzeko giltza?**
Fakultateko Atezaintzan egongo da gordeta.

**Fakultateak argitaratu eta/edo editatuko du katalogorik eta/edo aretoko orririk?**
Fakultatea konprometitzen da informazioa asteko aldizkarian, blogean eta sare sozialetan argitaratzera, eta 15 kartel As kolorean inprimatzera; halaber, dossier / katalogo txiki bat prestatuko da, ikastetxeko praktiketako ikasleekin koordinatuta.

**Proposamenen bat aurkeztu dezakegu?**
Urtean bi deialdi egingo dira proposamenak aurkezteko, udazkenean eta udaberrian.

**Nork aukeratzen ditu erakutsiko diren proposamenak / proiektuak / obrak?**
Aukeraketa batzorde batek egingo du, ondorengo pertsonez osatuta: sail bakoitzeko pertsona bat (lau guztira), Unibertsitate Hedakuntzako dekanordea eta ikasleen lau ordezkari (gradu bakoitzeko bat eta gradu-ondokoko bat), urtero deialdi publikoan aukeratuko direnak.

**Noiz abiatuko da?**
Egoera sanitarioa eta beraren ezin aurreikusizko ondorioak kontuan hartuta, denboraz jakinaraziko dizuegu noiz irekiko den aretoa eta noiz abiatuko diren programazioa eta deialdiak.

Zuzendaritza Taldea

**¿Quién tiene la llave de acceso?**
Estará depositada en la Conserjería de la Facultad.

**¿El centro publicará y/o editará catálogos y/u hojas de sala?**
El centro se compromete a publicar la información en el boletín semanal, el blog y redes sociales, la impresión en A3 color de 15 carteles, además se elaborará un pequeño dossier/catalogo digital en coordinación con el alumnado en prácticas del centro.

**¿Podemos presentar una propuesta?**
Se abrirán dos convocatorias al año para la presentación de propuestas, en otoño y en primavera.

**¿Quién selecciona las propuestas / proyectos/ obras a exponer?**
La selección la realizará una comisión formada por una persona de cada departamento (cuatro en total), la vicedecana de Extensión Universitaria, la Decana (o persona en quien delegue) y cuatro representantes del alumnado (una por grado y una de posgrado) que se seleccionarán anualmente en convocatoria pública.

**¿Cuándo se pone en marcha?**
Debido a la situación sanitaria y la imprevisibilidad de sus consecuencias, os comunicaremos con tiempo la apertura y puesta en marcha de la programación y las convocatorias.

La Dirección del Centro